

Espetxeen transferentziaz, espetxeak abolitu artean

Martxoaren 24an Lurgatz talde feministak *Espetxeak apurtu! Eta bortxatzaileak...?* mahai-ingurua antolatu zuen Villabonan. Bertan mintzatu ziren Salhaketa Nafarroako Libertad Francés Lecumberri, Demokraziarako Epaileak taldeko Garbiñe Biurrun Mancisidor, Joxemi Zumalabeko Ainhoa Narbaiza eta Marta Luxán Serrano eta EH Bilduko kide izateaz gain genero indarkeria kasuak ere eramaten dituen abokatua den Larraitx Ugarte Zubizarreta.

 ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA  DANI BLANCO

Mahai-ingurua gidatu zuen Amagoia Eskuderok gogoratu zuen debate honen aurrekaria beste mahai-inguru bat izan zela; aurreko urtean egin zen *Emakumea**, *espetxea*, *zaintza* hain zuzen: preso egondakoek azaldu zuten kartzela zergatik den are zanpatzaileagoa emakumeentzat, eta irtenbidea kartzela abolitzea dela. Horrek bigarren aztergaia ekarri die Lurgatz talde feministakoei: justizia nola landu? Erasoan aurrean zer bide hartu?

Espetxe politikaz galdetu zien lehenik Eskuderok, eta denak agertu zuten honetik aurrakotasuna, ez dituelako lege ezartzen zaizkion “gizakia hezte” eta “birgizarteratzea” helburuak betetzen. Biurrunek oinarritzko kontraesana bistaratu zuen, “ia ezinezkoa da pertsona bat hezitzea eta gizarteratzea askatasunik gabe. Pertsonaren duintasuna eta mui-na da, hain zuzen ere, askatasuna. Psi-

kologoek esaten dute 15 urtetik aurrera kartzelan egonda pertsona desegituratu egiten dela eta duintasuna galtzen duela, hain zuzen ere askatasunik gabe bizi behar izan duelako eta ez duelako gaitasunik ezer erabakitzeke”.

Ugartek sistema geroz eta punitiboagoa dela azaldu zuen: “Zigor Kodean al-daketak ‘titular kolpeka’ egiten dira, al-bisteen eta presio sozialaren arabera. Ez da legezko egiten lasai, erronkei nola aurre egin pentsatuta... Zerbait oso dramatiko gertatu da Cuencan? Bada lege aldaketa egiten da. Ondorioz, sistema geroz eta punitiboagoa da. Eta gainera ez dauka imaginaziorik: zigorraren gehiengo espetxeari lotuta dago, ez dagoelako beste motatako zigorrak edo erreparazioetara orientatutako legediarik”. Behin atea ixten denean espetxe barruan gertatzen diren oinarritzko eskubideen urrakete-tan inpunitate erabatekoa dagoela azaldu zuen: “Horretaz guztiaz eztabaida pausa-



tua eman beharko litzateke, jendeak ezagutu behar luke zer den justizia administrazioa, eta ezagutu beharko luke oso ongi zer gertatzen den espetxeetan”.

Biurrunek zera erantzun zion: “Ez dut uste gizarteari asko axola zaionik espetxeen egoera eta espetxeetan dagoen jendea. Badakit herri honetan kezka berezia dagoela preso dauden pertsonen inguruan, baina batez ere preso dauden batzuekiko, ez guztiekiko. Salhaketa aparte uzten dut, zeren betidanik egin du lana preso guztiekiko. Baina ez dezagun nahastu gauza bat eta bestea. Preso dauden pertsona askotaz inor ez da gogoratzen, ardura-



tzen eta kezkatzen". Ugarte, bere txanda iritsitakoan, Biurruni zuzendu zitzaion: "Oso injustua da Biurrunek hori esatea, zeren 2019ko otsailean, EH Bilduk Legebiltzarrean 100 neurriko proposamen bat aurkeztu zuen, espetxe transferentziari begira. Bertan esaten duguna ez dago lotuta preso politikoen aferarekin". Gerroago, Biurrunek bere hitzartzea baliatu zuen Ugarteri erantzuteko: "Injustua ez dakit zergatik esan duzun. Esan dut gizarte hau bereziki preso batzuez arduratu dela eta ez preso guztiez. Nik ez dakit azken 40 urte hauetan zein tolosar seme-alaba egon diren espetxeratu, ETaren

inguruko presoak aparte, zeren horiek ezagutzen ditut, eta oso ongi dago. Nik neuk ere nire buruari horixe bera leporatzen diot, preso batzuez soilik arduratu izana. Uste dut hori ukaezina dela. Eta egia da azken urteetan egon dela beste kontzientzia bat".

Francésesek kartzelen zilegitasuna jarri zuen auzitan: "Salhaketan kartzelaz dugun ikuspegia da desagertu beharko lukeen instituzio bat dela eta ez duela bestelako zilegitasunik erakundeetatik ematen zaiona baino. Gizarte eta norbanako moduan ez genuke onartu behar gure izenean kartzelak egoten jarraitzea.

Kartzelak espazio totalitarioak dira, giza eskubideak sistematikoki urratzen diren lekuak. Nahikoa argudio bada, zeren sistematikoki eskubideak urratzen diren espaziorik ez litzateke existitu beharko. Gainera, kartzelak ez balu eskubiderik urratuko ere, uste dugu ez litzatekeela zi-legi, askatasuna kentzea bera zigorra delako eta tratu inhumano eta degradantea delako, pertsonaren duintasunari eraso egiten diona zuzenean". Bergizarteratze-ko funtzioa bera ere kuestionatu zuen: "Nola bergizarteratu daiteke bazterkeriatik? Eta gainera nola nahi izan liteke pertsona bat bergizarteratzea pertsona

hori baztertzen duen gizartean?”. Enfasia “delitu” hitzean jarri beharrean, oinarrian dauden gatazka sozialak konpontzen jarri behar dela defendatu zuen: “Kartzelan da goen jendearen profila aztertzen badugu, ondorioztatu daiteke kartzela eta sistema penal osoa pertsona batzuei zuzenduta dagoela: politika kriminala, polizien, fiskalen eta epaileen begiradak zuzenduta daude kolektibo jakinetara, eta esaten da pertsona hauek egin dutela gaizki dagoen zerbait, ‘delitu’ bat. Hizkuntzak indar handia du eta gauza bati ‘delitu’ esaten badiogu askoz larriagoa dirudi, besteena den zerbait eta horren aurka borrokatu egin behar den eta zigortu behar den zerbait. Baina ahazten edo ezkututzen zaigu delituaren atzean dagoen errealitatea: gatazka sozialak. Ez dago beste ezertxo ere delituen atzean. Kartzelan dauden pertsona gehienak kondena betetzen ari dira hain oinarritzkoa eta sinplea den gatazka sozial honekin zerikusia duen zerbaitengatik: pobrezia eta desberdinkeria sozialak. Mahai-inguru honetako gaira etorrira, kartzelatan dauden pertsonen %14-15 ari dira kondena betetzen lotura dutelako gatazka sozial hauekin: matxismoa, genero indarkeria, eta orokorrean patriarkatua. Guretzat oso garrantzitsua da begia oinarrian dagoen gatazkan jartzeara, eta ez hainbeste “delitu” hitzean, hitz hori baita sistemak ikustea nahi duena, gainerakoaz itsutzeko. Hortik, apustu egin dugu zigorraren kultura abolitzearen alde, ulertzen dugulako erabat patriarkala den sistema penalaria eustea ez dela egokia edozein arazori erantzuteko, baina are gutxiago emakumeen kontrako egitu-

razko indarkeriari erantzuteko. Guretzat kartzela ez da zilegi inolako pertsonarentzat eta inolako deliturentzat”.

KARTZELA, ZIGOR IZARRA

Ugartek gogora ekarri zuen Aznar presidenteak egin zuen aldaketa: “2003an Aznarrek Zigor Kodean oso erreforma indartsuak egin zituen, eskuinaren agenda jarraituta, zailtzeko jendea espetxetik ateratzea eta zailtzeko erregimen ireki batean egotea. Erregimen itxia, bigarren gradua deritzona, ohiko bihurtu zen”.

Biurrunen arabera, “1995eko Zigor Kodean kartzela zigorrak erreserbatuta daude delitu larrientzat. Delitu arinei ez dagokie espetxe zigorrik, beste zigor batzuk baizik: isunak, gizartearentzat lanak egitea... Baina Espainiako Estatuan gertatzen ari dena da, horren larriak ez diren delituen kasu batzuk espetxe zigorrarekin zigortzen ari direla. Adibidez, Pablo Hasélen kasua. Askotan egiten dira gauzak gaizki, oso larriki urratzen dira arauak eta beste pertsonen eskubideak eta kalte handia egiten zaie besteei. Baina hori ordaintzeko, egindako kaltea arintzeko, leuntzeko, ez al dago beste biderik?”.

Francésesek ere berretsi zuen Espainiako Zigor Kodean dagoen zigor izarra kartzela dela: “Zigor Kode osoa dago zuzendua pertsonak azken pauso moduan kartzelan bukatu dezan. Kartzelaren alternatiba diren zigorrak existitzen dira, baina bi dira funtsean: isunak eta komunitatearentzatko lanak. Buruan bortxatzaileen iruditegia dugunean, edo sexu jazarlearen, edo horrelako delitu larriak, normalean zuzenean kartzelara doaz. Garrantzitsua

da hau gogoraraztea, zeren batzuetan badirudi Zigor Kodea biguna dela eta inondik inora ez da horrela, 1995etik hona erreformak egin izan zaizkio eta beti gogortzeko izan da. Zigor Kode gogor bat dugu, lehentasunez eta gehien ezartzen duen zigorra kartzela duena”. Kondenen etena ere hor dagoela azaldu zuen: “Hau da, pertsona batek kartzela zigorra jaso dezake baina baldintza batzuk betetzen baditu posible da kartzelara ez sartzeara, denbora batean jarrera batzuk izatearen baldintzapean. Baina hori ez da kartzelaren alternatiba, kartzela hor dagoelako. Sexu delitu edo genero indarkeria kasu batzuetan badago aukera pertsona horri kartzela zigorra eteteko eta kasu horietan sistema bideratuta dago bi baldintza bete daitezten: biktimari kaltearen erreparazioa egitea eta neurri batzuk ezartzea biktima babesteko, hauek dira urrutitze aginduak, komunikatzeko debekuak eta abar. Eta bestalde, aukera dago tratamendu batzuetara behartu zaitzaten, genero indarkeriarekin edo sexu indarkeriarekin zerikusia dutenak”.

Tratamendu horiei dagokienez, kartzelatan oso programa gutxi daudela salatu zuen Francésesek: “Kartzelan funtsean bi programa daude: bata da sexu erasotzaileentzat eta bestea genero indarkeriarentzat. Genero indarkeriarena ia kartzela denetan ezarria dago baina sexu erasotzaileenaz ditudan 2017ko datuen arabera, Espainiako Estatuko 69 kartzeletatik 29tan bakarrik zegoen ezarria. Adibidez, Iruñeko kartzelan ez dago sexu erasotzaileen ikastarorik, hiri hori hain paradigmaticoa izan denean, ez soilik *Manada* kasuagatik, baita Nagore Laffageren kasuagatik ere. Bi urte irauten ditu sexu erasotzaileen programak eta kartzela erakundeak berak dio jendeak bertan parte hartu ahal izateko baldintzapeko askatasunetik gertu egon behar duela, hau da, kondenen 3/4ak beteta. Beraz, ez da administrazioak berak hasieratik egiten duen lan bat. Kartzela eskatzen dugunean, hau ari gara eskatzen: ez da ia lanik egiten birgizarteratzeko, eta egiten duguna da pertsona barrura sartu, atea itxi, giltza bota eta itxaron hortik ateratzen ahalik denbora gehien kostatu dakion”.

Biurrunek kartzelaren heziketa funtzioa bera zilegi ote den kuestionatu zuen: “Galdetu beharko genioke gure buruari ea estatuak baduen eskubiderik pertsona heldu bat hezteko. Eta zertan hezi beharko luke? Nik uste dut giza eskubideak izan beharko luketela heziketa horren muina eta edukia: ezagutu, jakin, norberak ditue-



la eta besteek ere bai, eta errespetatu egin behar direla. Eta ez da inola ere gai erraza, estatuak preso dauden pertsonen kontrol ideologikoa egin dezakeelako. Eta erabaki dezake presoek zer nolako pentsamoldeak izan beharko lituzketen 'ondo' hezita dagoela edo gizarteratzeko 'gai' dela erabakitzeko”.

EPAITEGIAK MIN GEHIAGO DAKAR

Ugartek azaldu zuen epaitegietako prozesuak oso luzeak eta mingarriak direla bi aldeentzat: salatuarentzat eta biktimarentzat. “Berez badago biktimak babesteko lege bat, baina inondik inora ere ez dira bere eskubideak bermatzen. Aste honetan tokatu zait neskata bat, sexu abusua pairatu dituen, laugarren aldiz esplikatzen behar izan duena oso-oso adin txikiarekin zer egiten zion bere aitak. Adibide bat da, baina ohikoa. Errugabeak ezin dira zigortu, noski. Baina nola egin daiteke hori biktimak kaltetu gabe? Azkenean amaitzen duzu emakume askori esaten bi aldiz pentsatzeko ea justizia administrazioan sartuko diren, horrek berbiktimizazioa ekarriko die-lako, beraientzako oso gogorra izango delako, epaitegietan genero indarkeriaren edo bortxaketaren ulerkerak ez direlako gizartean ditugunak bezain zabal eta modernoak... behin epaitegiko atea gurutzatzen duzunean, iraganera joango bazina bezala da. Askotan frogarik ere ez dago, eta hor jada sartzen zara sinesgarritasunaren gerran, horrek dakarrena-ekin horrelako kasu batean”.

JUSTIZIA ERRESTAURATZAILEA ETA ANTIPUNITIBISMOA

Biurrunek justizia errestituzioa zer den azaldu zuen, baina argitu zuen sistema barruko bide bat dela: “Justizia errestituzioa lortu nahi dena elkarriketa bat sortzea da, biktimaren eta biktimarioaren artean eta haien artean konponketa batera iristea. Baina horrek ez du saihesten sistema judizialaren marxta, nahiz eta leundu dezakeen honen erantzuna. Baina bilatzen dena beste zerbait da, eta biktima askok esaten dute oso ongi etorri zaiela horrelako sistema desberdin batean sartzea”. Mai-xabel Lasa hartu zuen adibidetzat: “Bera izan da justizia errestituzioa eskaintzen dizkigun mesedeen aldeko ikurra. Berak esaten du zer nolako bakea eta lasaitasuna ekarri dion bere senarra hil zuten Luis Carrasco eta Ibon Etxezarretarekin elkarriketatzeak eta ezagutzeak beraien sentimenduak, beraien arazoak,



beraien beharrak eta abar. Carrasco eta Etxezarretari eskatu zaie egindakoa aitortzea eta prest egotea hori ordaintzeko, sendatzeko, konpontzeko. Horiek dira justizia errestituzioaren oinarriak: aitortzeko eta konpontzeko prest egotea”. Etorkizunean aurrerapausoak emateko bere ustez norabidea zein den azaldu zuen Biurrunek: “Aurrerapauso bat izan da aitortzea delitu guztietarako egia, justizia eta ordainketa edo erreparazioa. Nik uste dut bai pertsonalki eta bai edozein gizarterentzat abiapuntu onak direla. Kontua da zer nolako ordainketa, zer nolako erreparazioa egiten den. Eta horretarako argi dago espetxeek ez dutela batere balio”.

Mahai-inguruan zehar antipunitibismoarekiko ezezagutza eta jakin-mina agerian geratu ziren, ea delitu guztietarako balio ote duen edo arinetarako soilik... Francések tartea hartu zuen honen oinarriak azaltzeko: “Antipunitibismoa ez da sistema bat, filosofia bat da, zeinak lan egiten duen gatazkak konpontzeko ezarria dagoen modu hau bukatu dadin: indar handia egiten baitute erakundeek delitu larrientzat prozesu penal bat eta zigortzeko leku bat egon daitezen. Antipunitibismotik planteatzen dena paradigma aldaketa da, filosofia eta kultura aldaketa, gizarte gatazkak beste logika batzuetatik planteatu ditzagun. Kargu egin gaitezen, delituen atzean dagoena ez dela pertsona hori zigortzeko beharra, baizik, gizarte bezala delitu horiek egitera eramaten gaituzten beharrak asetzea. Hori bera aplikatu behar da, guztioi oso desatsegin

zaizkigun delituez ari garenean: genero indarkeria, sexu erasoak... horren atzean dagoena ez da delitu bat egin duen pertsona bat bakarrik, askoz gehiago dago. Baita ere planteatzen dugu delituak egiten dituzten pertsonekin arazo hori ezin dela landu zigor kodetik, prozesu judizialetik, eta zigorretatik. Emakumearen Aurkako Indarkeriaren 2019ko Makroinkes-taren arabera, bi emakumetik batek jasan du bizitzan zehar edozein motatako genero indarkeria. Baina horietatik %90ak ez du epaitegietara jo. Ez salatzen dauden arrazoi nagusiak dira lotsa, beldurra, salatu ezina, badakitela emango dioten konponbideak ez dituela aseko... baina horren ondorioa da, errealtatean, oso espazio zabal bat dagoela ez duena erantzun punitiboa ematen, eta punitibismo ofiziala iristen ez dena”.

Francések Biurruni erantzun zion, justizia errestituzioa punitibismotik nola ikusten den azalduz: “Aipatu dituzun biktima eta biktimarioen arteko elkarriketak noski errestituzioak direla. Antipunitibismotik bultzatzen dugu biktima izan den emakumea dela babestu behar den aldea eta horretatik abiatu behar dela zaintza. Ahaldundutze handia ematen dio biktimari eta gizarteari. Baina horrek ez du ekarri behar automatikoki beste aldeak onartu behar izatea, erreparatu behar izatea... bultzatzen dena elkarriketa da eta azken buruan, biktimak osatu ahal izan dezala bere burua, beste pertsona batek bera osatzea behar izan gabe, hau da, ez duela beste partearen errekonozimendua eta erreparazioa behar bera

“Prozesua egin beharra kaka zaharra da baina eraldaketarako bide bilakatu ahal dugu”

Joxemi Zumalabeko Ainhoa Narbaizak inplikatzearen garrantzia nabarmendu zuen: “Kultura ez-zigortzailearen norabidean joan edo justizia eredu eraldatu nahi badugu, komunitatea gehiago inplikatu behar da kudeaketan: ezin dugu dena epaiketen edo salaketen esku utzi. Gure inguruan eraso bat gertatzen denean, bustitzea eskatzen du, gehiago inplikatzeko eta horretan formatzea. Ez da bide erraza, prozesu oso luzeak izaten dira, energia handia xurgatzen dutenak”.

Marta Luxanek herrietan burutzen ari diren prozesuetatik ateratu zituen ondorioak azaldu zituen: “Oso garrantzitsua iruditzen zaigu erreferente publikoak egotea, mugimendu feministak erdigunean egonda. Hau da, jendeak jakitea nortzuk dauden herriko eraso kudeaketa taldean, horrela, norekin hitz egin behar duen jakiteko eta zerbait irekia izateko, ez lagunentzat soilik. Garrantzitsua da hasieratik argi geratzea prozesuaren jarraipena nortzuk eta nola egingo duten: protokolorik baldin badago, protokoloan jasotzea zeintzuk diren prozesuak martxan jartzearen arduradunak. Edo protokolorik ezean, argi izatea prozesu horretan komunitate ezberdinetako zein pertsona zehatz ari diren parte hartzen eta bakoitzak zer ardura dituen”.

Narbaizak beste gako hauek gehitu zituen: “Prozesuaren helburu zehatzak argi izatea oso garrantzitsua da. Batzuetan helburua errelato bat eraikitzea da: zer gertatu den denon artean adostea. Beste batzuetan, dauden minak sendatzea. Beste batzuetan, gertatu denarekiko amorrua adieraztea. Beste batzuetan, pertsona batzuen bizitza babestea. Beste batzuetan, babesguneak sortzea, berriz zerbait gertatzen bada herrian erreferentziatzeko lekuak izateko... Beste gako bat da baliabideak jartzea: askotan behar eta borondate handia dago baina gero praktikan ez dira baliabideak jartzen: lantaldeak, adituak, aurrekontuak, espazio egokiak... prozesu hauek egoera batzuk kudeatzeko dirua behar da, formazioak, abokatuak ordaintzeko... herrigintzaren inguruan

ari bagara, denbora ere eman behar da gauza hauek lantzeko. Sortzen diren erruak, minak... kudeatzeko ere denbora behar izaten da”.

Herrigintzako protokolo herrikoietan maiz aipatzen da neurri moduan, eraso egin duen pertsona terapiara joatea edo lanketa bat egitea. Narbaizaren arabera, “esperientziak erakutsi digu nahiko gatazkatsua izan daitekeela, zeren adosten da lanketa egingo duela pertsona horrek baina nolako lanketa? Nork ziurtatzen du lanketa hori ikuspegi kritiko edo feminista batekin eginda dagoela? Batzuetan lanketa oso modu isolatuan egiten da: badakigu pertsona bat ari dela beste batekin zerbait lantzen baina ez dago kontrasterik”. Eta eraso egin duen pertsonaren ingurua inplikatzeko oso garrantzitsua dela erantsi zuen: “Kua-drillari esatea busti behar direla, inplikatu behar direla, eta ardurak hartzea. Bestela zerbait isolatua bezala ikusten da eta ondoren eraldaketari begira ez da emaitzarik lortzen”.

Komunitatearen ardura ateratu zuen mahai gainera Luxanek: “Erreparazioaz ari garenean, ez gara soilik ari erasoak jaso dituztenei buruz, komunitatearen erreparazioari buruz ere ari gara. Gu ere bagara komunitate horren parte eta komunitateak badauka ardura bat. Zer egin dugu gaizki hau gertatzeko? Zer pauso ez ditugu aurretik eman hau gerta ez zedin?”. Amaitzeko, zera eskatu zuen: “Komunitarioak diren prozesuak ez erromantizatzea. Argi izan behar dugu bidean minak eta arazoak sortuko direla eta garrantzitsua da hasieratik pentsatzea arazo eta min horiek nola kudeatuko ditugun prozesu horretan, nola egingo diegun leku”. Biribiltzeko, prozesu hauek aukera moduan ikusteko gonbidapena luzatu zuen: “Kazaharra da, oso gauza gatazkatsuak dira, sekulako energia kentzen digute... baina prozesu hauen bitartez eta komunitatearekin lan egiten badugu, prozesua bera eraldaketarako eta prebentziorako bidea bilakatu ahal dugu. Ez dut esaten beti hala gertatzen denik, baina izan liteke. Eta aukera hori ez digu kartzelak eskaintzen”.

osatu ahal izateko. Eta osatu daitekeela prozesu judizial batetik pasatzeko tragua bizi izan beharrik gabe ere, horrek askoz min handiagoa sortuko baitio dagoeneko baduena baino”. Alternatiba hauek proposatu zituen: “Justizia errestituzioa alternatiba bat da, noski. Baina ez Espainiako Estatuan aplikatzen ari den moduan: prozesu penalaren zerbitzura dagoen erreminta bat da egun. Guretzat, benetako justizia errestituzioa da gatazken konponbide alternatiboez aritzen dena. Benetan sor daitezela espazioak, pertsonen haietara jo ahal izan dezagun gure gatazkek konpondu ahal izateko; ez delitu bat salatzeke, toki hori epaitegia baita. Espazio bat egon dadila zeinetan esan ahal izango duen gatazka hau izan dudala, bai, zigor kodean agertzen dena, baina ez dudala hortik konpondu nahi, beste espazio batean baizik”. Espazio hauek jada existitzen direla eta zabaltzen ari direla azaldu zuen, baina estatutik ez dela bultzatzen gatazkek konpontzeko modu hau: “Estatuari interesatzen zaiona da jarraitu dezateke existitzen prozesu penalek, poliziek eta kartzelak”. Feminismoari zuzendu zitzaion amaitzeko: “Kontuz modan jartzen ari den ideia honekin: justiziak feminista izan behar duela. Atera gaiten erabat kristauak, matxistak eta patriarkalak diren zigor logika hauetatik, zeina etengabe ‘justizia’ bilatzen aritzen den. Zer da justizia? Bakoitzak izango dugu gure definizioa. Beraz, justizia feminista? Ez, feminismo antipunitibista baizik”.

Ugartek “nahiko gurekin eta lortu dezakegunaren arteko oreka” kontuan izan behar dela esan zuen: “Nahiko gurekin ez bortxatzaileak eta ez inor joatea kartzelara? Bada bai. Egongo lirateke metodo eraginkorrek bortxatzaile horrek berriz ez bortxatzeko? Garrantzitsua da sistema ez punitibista edukitzea baina garrantzitsua da baita ere jendar-tean segurtasuna bermatzea. Eta ez dut ikusten emakumeok lasai bizi garenik. Oso gauza politak esaten ditugu, baina gero errealitatean lur hartzen dugunean ea zer egiten dugun. Nik uste dut kasuetan graduazioak daudela. Ikusi behar da zein den testuingurua eta zer irtenbide ematen zaion bakoitzari. Guztientzako errezeta berak ez du balio”.

TRANSFERENTZIEN GAIA

“Zer da espetxeen transferentziarekin etorriko dena?” galderari erantzun zion Ugartek: “Hiru gauza: batetik, presoak transferitutako dira. Egun EAEn daude-

nak EAEko espetxe zaintzako presoak izatera pasatuko lirateke. Une honetan EAEn 1.300 preso inguru daude eta beste 200 inguru Nafarroan. Badira beste 800 bat preso egoitza administratiboa EAEn izanda, estatuko beste espetxeetan daudenak. Teorian, espetxe transferentzia emango balitz, preso horiek ere, aukera izan beharko lukete EAEko espetxeetara etortzeko. Transferituko den bigarren gauza funtzionarioak dira. Orain estatukoak direnak pasatuko lirateke EAEko funtzionario izatera. Eta hirugarrenik, azpiegiturak. Azpiegiturak diru kopuru batekin transferitu beharko dira, zeren Zaballakoa salbu, jasoko ditugun espetxeak erabat obsoletoak dira eta obrak egin beharko lirateke... Zubietako proiektua ere hor dago, Martutene itxi nahi delako...". Transferentzia burutzeak denbora beharko duela azaldu zuen, eta pare bat urte barru egon daitekeela guttiz eskualdatuta. Baina orduan ere, zer ez da aldatuko? "Espainiako Zigor Kodearen arabera joango direla pertsonak espetxera. Eta aplikatuko zaien legedia penitentiario espainiarra izango dela. Preso politikoen kasuan, Auzitegi Nazionalako exekuzio organoa izango litzateke espetxe zigor horien jarraipena egingo lukeena. Eta espetxe zaintzako epaitegia ez litzateke izango EAEkoa, Madrilgoa baizik. Zeren hori guztia aldatzeko, legislazioa aldatu beharko litzateke Espainiako Kongresuan eta Senatuan". Orduan, aldaketarako tarterik bada? Ugarteren hitzetan: "Bai, marjena oso handia da zigorraren iraupenari eta espetxe baldintzei dagokienean eta bigarren hau da aspekturik interesgarriena".

EH Bilduk espetheen transferentzian egindako 100 neurriko proposamenaren hainbat puntu azaldu zituen: "Plan teamendu aurrerakoia egin dugu, espetxe zigorra ahalik gutxien erabiltzeko, espetxe zigor hori ahalik eta motzena izateko, eta espetxealdia ahalik baldintza onenetan egiteko eta ahalik lasterren erregimen irekian bete dadin: Espainiako Estatuan erregimen ireki batera, hau da, hirugarren gradura sarbidea izateko, zigorra jada oso aurreratua izan behar duzu. Guk planteatzen duguna da, ohikoa izan behar lukeena erregimen ireki bat dela: ohikoa behar luke programa bat izatea, zigor betetzea komunitatearekin batera egitea, permeabilitate handiagoa, gardentasun handiagoa, kontrol publiko handiagoa... adibidez, Katalunian espetxea oso kontrolatua dago Parlamentaren eta gizarte eragileen aldetik,



eta isolamenduaren neurria kendu egin dute edo aplikazioa asko murriztu dute Parlamentak horrela erabaki duelako mugimendu sozialekin". Ugarterek konfiantza du Euskal Herriko gizarte mugimenduan: "Hemen bada mugimendu sozial andana gai horrekin arduratua dagoena eta aukera egongo litzateke espetxe horiek gardenagoak izateko, jendea ikuskatzera sartu ahal izateko, beste politika batzuk egin ahal izateko eta bote-re publikoak, hau da, espetxe eskumena hartuko duen Jaurilaritzak eta eragileek, familieek, presoek harremana beste modu batean izateko. Jendearen osasun baldintzak eta hezkuntza bermatuz, enpresekin baloratuz nola egin ibilbide soziolaboralak bermatzeko, familieko harremanak nola egin...". Azpiegitura aldetik, Kanadako emakumeen espetxeak jarri zituen adibide, tesina haiei buruz egin baitzuen: "Kanadan halako lobby feminista bat eratu zen: zigor federalak betetzen zituzten emakumeen espetxeetan etxetxotan zeuden autoantolatuta, bisitak egunero zituzten, haurrak denbora gehiagoz eduki ahal zituzten... horrelako gauzak esploratu behar ditugu eta horregatik planteatu genituen 100 neurriak. Eta egia esan, Jaurilaritzaren aldetik dauden irizpideak entzunda, uste dut kontsentsu handia egon daitekeela mota horretako neurriak lortzeko, erakundeen aldetik ere". Biurrunek izen bat eman zuen: "Eusko Jaurilaritzak kartzelen transferentzia lantzeko izendatu duena Demokraziarako

Epaileak taldeko kide den Jaime Tapia Parreño da. Berak horretaz esperientzia handia dauka eta ikuspegi berezia, itxaropena ematen didana".

Francésesek berretsi zuen hobekuntzak landu behar direla kartzeletan, "baina aboliziorako, ez betikotzeko. Baina ezin dugu ukatu existitzen duela eta beraz, antipunitibismo aldarrikatzen dugu preso dauden pertsonen eskubideak errespetatzea, kartzelak existitzen diren bitartean. 2017an Nafarroan txosten bat aurkeztu genuen kompetentzia penitentiarioak eskuratzeko beharraz. Egin daitezkeen gauzak dira eta ez dira antipunitibismoarekin kontraesanean. Gauza bat baita logikak planteatzea, norantz jo nahi dugun bidea lantzeko, baina ahaztu gabe instituzio hau existitzen dela eta kartzelan dauden pertsonez ahaztu gabe". ●

DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGIA

Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



SIGACUS

☎ 943 453 588 · www.sigacus.com